

Langileak proiektuaren jabe

Azken hilabeteotan ARGIAren iraganeko zertzeladak eskaini ditugu orriotan. Oraingoan gaur egungo ARGIAren muinera joko dugu, 90 urte iraun duen komunikazio proiektuak une honetan oinarri dituen printzipioetara.

90 URTE bete dituen komunikazio proiektua asko aldatu da bere historian, etengabe egokitu eta berrantolatu behar izan du garaian garaiko beharrei erantzuteko. 1980ko hamarkada hasieran ARGIAk ekonomia sozialaren ereduari heldu zion (kooperatiba) eta egun ere S.A.L. bat osatzen dute bertako langileek.

Hala, ARGIAko langileak proiektuaren jabe dira, “zentzu guztietan”, Berdaitz Goia kudeatzaileak dioenez, “ekonomikoki nahiz erabakiei dagokienez. Proiektua unero bazkideek eta, beraz, langileek nahi dutena da, erabakitzen dutena, eta horrek proiektuaren independentzia bermatzen du”.

ARGIA egiten duen Komunikazio Biziagoa enpresaren bazkideetza aukerazkoa izan arren, langileen %90etik gora da bazkide. Xabier Letona zuzendariaren hitzetan, “komunikazio eta informazio ekimen batean sinesgarritasuna izatea oso garrantzitsua da, eta horretarako menpekotasunik gabeko proiektu-



ARGIA egiten duen egungo lan taldea. Langile gehien-gehienak bazkideak dira eta, horrenbestez, proiektuaren nondik norakoak erabakitzeke ahalmena dute.

tua garatzea funtsezkoa da. Langileak enpresaren jabe izatea giltzarri da horretarako”. Horrek guztiak funtziona dezan langileen arteko konfiantza, komunikazioa eta berdintasuna funtsezko printzipiotzat dituzte. Berdaitz Goiairen esanetan, “bakoitzak bere ardura du baina guztiak berdinarak gara; antolaketa guztiz horizontala da”.

“Proiektua uneoro bazkideek eta, beraz, langileek erabakitzen dutena da, eta horrek proiektuaren independentzia bermatzen du”

BERDAITZ GOIA, KUDEATZAILEA

Langileen erabakitze ahalmen hori da motorra, Estitxu Eizagirre erredaktore buruaren iritziz. Bazkideztaren filosofia maila guztietan islatzen dela dio: “Erredaktore bakoitzak bere atala bultzatzen du baina besteekin etengabeko loturan. Hala, iragazkia eguneroko, eten-gabe, gauza guztietan dago. Artikulu bakoitzaren atzean langile askoren lana eta irizpideak daude”. Ideia edo bide berrien atzean ere langileak daude eta hori Interneten antzematen da bereziki, euskarri horrek ekimen berriak gauzatzeko aukera zabala eskaintzen baitu.

ARGIA astekaria izanik, helburua ez da Euskal Herrian gertatzen eta egiten den guztia biltzea. “Informazio kopuru ikaragarri honetan, aukeratu eta ikuspegi kritikoa landu behar dugu”, dio Eizagirrek, “eta gaiak eta ikuspegiak lantzeko ere askatasun osoa daukagu”.

Lan egiteko modu horren bidez bilatzen den berehalako helburua irakurleengana iristea da, Xabier Letonak azaldu bezala: “Erronkarik handiena astero-astero irakurlearengana iristea da, irakurleak gutako bakoitzaren lanak gogoz irakurtzea. Eta, jakina, irakurleak

sentitzea horren ondorioz Euskal Herriko errealitate informatiboan hobeto kokatua dagoela”.

Baina asteroko asmo horren gainetik dagoen helburu nagusia horrela laburbildu du zuzendariak: “Bestelako Euskal Herria, bestelako mundua nahi duten herritar guztiak ARGIA erreferentziatzko gune informatibotzat izatea”.

Horretara iristeko oztopo eta mehatxu asko gainditu behar izan ditu eta beharko ditu ARGIAK. Batetik arazo ekonomikoak aldizkaria bezain zaharrak dira ARGIAN eta oro har euskarazko prentsan. Bestetik, Mendebaldeko prentsaren azken urteotako krisia ere hor da. ARGIAK goiz heldu zien teknologia

berrien aukerei, eta Internet gero eta euskarri sendoagoa da komunikabide honentzat. “Horrek XXI. mendeko komunikaziora egokitzeko prest gaudela erakusten du”, Letonaren aburuz.

ARGIA etengabe egokitu da, eduki erlijiosoz osatutako liburuxka hartatik egungo multimedia komunikazio proiektura arte. Eta etorkizunean ere egokitu beharko du. Eta ARGIA egingo dutenek era-

“Bestelako Euskal Herria, bestelako mundua nahi duten herritar guztiak ARGIA erreferentziatzko gune informatibotzat izatea dugu xede”

XABIER LETONA, ZUZENDARIA

bakitzen dutena izango da. “Mehatxurik handiena” dio Xabier Letonak, “norberak egiten ari den horretan ez sinestea edo inguruko-ei transmititzen ez jakitea da. Zer-baitetan sinesten baduzu eta horretan saioak behin eta berriro egiten badituzte, porrotak izango dituzte batzuetan, baina azkenean aurrera egingo duzu”. ■



Franco hil zeneko azala. “Juan Carlos Errege” izenburuko artikuluan eman zen Francoren heriotzaren berri. 1975eko azaroak 30

ARGIAren bestelako azala. Duela 12 urte ARGIAren azala lehenengoz ez zen paperezkoa izan, www.argia.com webgunea abian jarri baitzen. 1997ko abenduak 10

ZERUKO ARGIAren ALDI BATI, AGUR

Zeruko Argiaren aldi eta egitura bati agur egiterakoan aldi emankor eta jori horretan lan egin duten guztiak eskertu nahi genituzke. Bide batez, aldi berri honetarako, laguntza eskatu nahi genieke euskaldun guztiei. Agur, Urte Berrira Arte, Argia berri den arte.

1925eko abenduak 21